

10. JARDUERA: MURALA

Mural bat egitea proposatuko diegu orain ikasleei. Jarduera hau egingo dugu modu orokor batean jasotako ikaskuntzak bertan plazaratzeko. Horretarako paper handi bat jarriko dugu paretan hurren altuerara bertan ikasitakoa jarri ahal izateko nahi duten moduan. Hau egiteko materiala eskura izango dute mahai batzuetan sakabanaturik, hau da, bertan pintzelak, margoak, errotulagailuak, mendirako bizitan jasotako materialak (hostoak, harria, loreak, belarra, egurra...), arkatzak, guraizeak etab.

Murala bukatu ondoren, ikasleak beste ikaskideei zer egin duten kontatzeko aukera izango dute eta bata besteari galderak egiteko aukera izango dute ere.

Azkenik, guztien artean murala eskolako pasabidean jarriko dute, guztiok ikus dezaten zer ikasi duten eta apaingarri gisa.